



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideetan, gure negozio ereduak ondo funtziona dezan, beharrezkoak izango ditugun aktibo nagusiak deskribatzen dira.

- Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure aldizkaria egiteko behar izango ditugun baliabideak hurrengo hauek dira:

1. Baliabide fisikoak

- Instalazioa: Produktuak fabrikatzeko instalazioa izango dugu hau da, lanerako leku bat (enpresa, etxea...). Gure kasuan lokailu bat izate erabaki dugu.
- Makinak: Gure aldizkaria sortzeko ordenagailua, inprimagailua, diseinuak egiteko materiala, tinta eta parera...izango dugu.
- Sistema informatikoa: Web gunea egiteko beharrezko, ordenagailuak, Interneta, telefonoa... izango dugu.
- Banaketa sarea: Aldizkaria banantzeko; garraio enpresak, kamioiak... beharrezkoak izango dira. Gure kasuan garraio enpresa baten zerbitzuak kontratatzea erabaki dugu, lan horretaz arduratzea oso astuna delako, gainera, gure enpresan ez dugu partaiderik hortaz arduratzeko, ezta beharrezko dirua kamio bat ordaintzeko.

2. Baliabide intelektualak

- Markak
- Jabego ezagutzak
- Patenteak
- Egile eskubideak
- Elkartek
- Datu-baseak

3. Giza baliabideak

- Sormena: Aldizkariaren diseinuaz arduratuko den lankidea ezaugarri hau izan behar du, gure kasuan; Luisa izango da erronka honen arduraduna.

Luisa Betancourt, Mabel Sanchez, eta Estibaliz Lasa.

- b. Ezagutza: Web gunea sortzeko informatika eta web guneak sortzeari buruzko ezagutzak izan behar dira, kasu honetan; Mabel lankideak arduratuko da.
- c. Antolakuntza: Salmentarako eta antolatzekeo abilezia beharrezkoa izango da, bezeroei iristeko, eta atal honetaz, Estibaliz lankidea arduratuko da.

4. Finantza-baliabideak

- a. Diputazioak eta eusko jaurlearitzak emandako laguntzak.
- b. Enpresei eta klinikei egingo diegun publizitatea aldizkarian.
- c. Bankuei eskatutako diru laguntza.

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamenak garatuko dugu, bezeroengana iritsi eta haiekin harremanak mantenduko dugu eta azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditugu gure enpresarako.